



IMANOL ROJO ▶ ESKIATZAILEA


«Anaia eta biok postu onean geratuko ginela espero genuen aurrez»

TOLOSA ▶ Espainiako
Distantzia Luzeko
Txapelketan lehen postua
lortu zuten bi anaiek

HITZORDUAK ▶ Asteburu
honetan Espainiako
Kopan hartuko dute
parte Candanchun ▶ 2



Rojo anaiek lehen postua erdietsi zuten, kadete eta senior mailan. HITZA



ASIER IMAZ

Euskal Herriko Itzulia gure eskualdeetan barrena

TOLOSALDEA-LEITZALDEA ▶ Leitza, Berastegi,
Elduain, Berrobi, Belauntza, Leaburu,
Amarotz, Txarama eta Lizartza igaro ditu ▶ 6

ALEGIA ▶

II. Bertso Paper Lehiaketari ekin diote

Bertso eskolak
antolatuta ▶ 5

LARRAUL ▶

Kultur gune berria, herri txikiarentzat aukera handia

«Orain probetxua atera behar diogu»,
dio Jon Urkaregi alkateak ▶ 4



Kultur gunearen eraikina. I. GARCIA

LEITZA ▶

Ardoiren aurka ariko da etzi Aurrera

5 partida falta zaizkie
igoera fasean ▶ 7

IMANOL ROJO ▶ ESKIATZAILEA

«Aurretik ere espero genuen postu onean geratuko ginela»

Espainiako Txapelketan lehendabiziko postua eskuratu ondoren, Candanchun jokatu den Espainiako Kopan parte hartuko du asteburu honetan

ESTI EZEIZA

Imanol Rojo (Tolosa, 1990) gaztea bada ere ongi ezagutzen du eskiaren mundua, eta iraupen eskiko kirolarien artean puntakoen artean dihardu. Duela bi aste Espainiako Distantzia luzeko Txapelketan hartu zuen parte Joseba Rojok bere anaiarekin batera, eta biek ere lehendabiziko postua eskuratu zuten, kadete eta senior mailakoen artean, hurrenez hurren.

Zer moduz joan zen Espainiako Txapelketa?

Ondo joan zen, gustura geratu ginen.

Espero al zenuten lehendabiziko postuan geratzea?

Bai, espero genuen. Urte gutxian entrenatzen aritu eta gero bagenekien horrelako zerbait egingo genuela, postu onean geratuko ginela.

Maila ona izan al da?

Bai, maila altua zegoen. Espainia guztiko jendea zegoen eta maila nahiko altua genuen.

Nola izan zen Txapelketaren garapena?

Hiru egunetan jokatu zen. Lehendabizikoan, zazpi kilometro eta erdi modu klasikoan egin behar izan genuen. Ondoren, proba berdinean, eskiak aldatu, eta beste zazpi kilometro eta erdi skating eginaz (patinetan bezala, baina eskiekin). Bigarren egunean 10 kilometro korritu genituen skating eginaz. Eta azken egunean, erreleboak.

Zein egunetan ibili zinen ondoen?

Lehendabiziko egunean.

Zein da zure probarik gustukoena, edo ongien ibiltzen zarena?



HITZA

GARAIPENA

«Espero genuen; urte gutxian entrenatzen pasa eta gero, bagenekien horrelako zerbait egingo genuela»

ESPAINIAKO KOPA

«Asteburuan jokatu dugu Candanchun; jada nahiko berandu da eta ez gaude oso motibatuta»

ELUR FALTA

«Aurten aldaketa asko egon dira, arazo ugari izan dituzte eta txapelketa gehienak atzeratu egin dira»

Ez dakit, baina 10 kilometroko distantzian, klasiko moduan ziurrenik.

Orain, zein txapelketa ari zarete prestatzen?

Asteburu honetan jokatu dugu beste bat. Espainiako kopa kasu honetan, hau ere Candanchun jokatu da.

Zer moduz ikusten duzu proba hau?

Ongi, hala ere, dagoeneko berandu da eta ez gaude oso motibatuta. Aurrendenboraldiari begira gaude iada.

Elurra baldintza onetan al dago?

Orain nahiko ongi dago, izan ere, azken bi asteetan asko egin du eta pixka bat geratu da. Dena den, bero asko ere egiten du, eta hau ez da ona.

Entrenatzeko garaian zailtasunak izan al dituzue?

Aste egunetan hemen bertan entrenatzen gara, korri eginez, mendira joaten, roll-eskian eta kiroldegira joanez. Asteburuetan berriz elurretara joaten gara. Hilabetean behin selekzioarekin joaten gara eta aste batean egoten gara kanpoan, konzentratuak.

Elur gutxi izateak aldaketak sortu al ditu txapelketetan?

Bai, aurten aldaketa asko egon dira, arazo ugari izan baitituzte elurrarekin. Txapelketa gehienak atzeratu egin dira.

Korritzeko garaian nabari al da elur falta hori?

Bai, baldintza txarragoak dira, elur gutxiago dago eta beti justu-justu ibiltzen dira.

Zein da elur onena? Zein baldintza behar ditu?

Elur erori berria da onena, hau da, pixkat gogorra dagoenean.

Tolosaldeko gainontzeko parte-hartzaileak zer moduz ibili dira txapelketan?

Denera zazpi joan ginen. Ongi ibili dira baina ez dituzte postu onegiak eskuratu. Nire anaia berriz, Joseba, lehendabiziko postuan geratu zen. Orohar maila ona dago Euskal Herriko eskiatzaileen artean.

Zeintzuk izan dira azken txapelketa honetako aurkari gogorrenak?

Herrialde katalanetako eskiatzaileak eta Andaluziakoak.

hilberria ▶



Xabier Etxabe

Biziari laztanak egin behar zaizkiok. Kaña eman behar zaionean kaña eman behar zaio. Ez izan beldurrik bizitzari bera gure laguna dek eta. Xabi, adiorik ez, gero arte!

Hire lagunak

GAUR errautsak lau haizetara banatuko dira BIDANIAN.

BIDANIA, 2007ko apirilaren 13a



HILBERRIAK URTEURRENAK ESKERTZAK

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZAK GIPUZKOAN
120.000 IRAKURLE

ESKELAK

19:00ak arte hartzen dira

tolosaldean@tolosaldeko HITZA.info

Tel.: 943 65 56 95



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

ELKARTASUNA ▶

Oztopoz beteriko bisitaldia

Aste Santuko jai egunetan saharar errefuxiatuen kanpamentuetan izan dira Tolosaldeko 7 lagun; bidaian zehar hainbat traba jasan behar izan dituzte

IÑIGO TERRADILLOS

Aurreko urteetan bezala, Aste Santuko jai egunetan bidaia antolatuta zuten Euskal Herritik Aljeriako Tinduf hiriarren alboan dauden saharar errefuxiatuen kanpamentuetara. Egun horietan han izan ziren Tolosaldeko Eli eta Amaiur Eizagirre, Ibai Luque, Amalia Adurriaga, Miren Barberia, Eguzki Dorronsoro eta Jatri (Tolosan bizi den sahararra) euren bertako familiei bisita egiten, eta, bide batez, Tolosaldeko iristen den diruarekin burutzen diren proiektuak ikusten.

Azken bidaia honetan, hainbat zailtasun gainditu beharra izan dituzte, bai joaterakoan, bai eta bueltatzerakoan ere, alegia, normalean gogorra izan ohi den kanpamentuetarako bidea, «askoz ere astunagoa» egin zitzaizela «aljeriarren erruz». Izan ere, hara joatean hegazkina Bilbotik berandua ateratzeaz gain, Tindufeko aireportu militarrean hainbat orduz egon beharra izan zuten zain. Bueltatzeko eguna heldu zenean (hau espero baino egun bat lehenago iritsi zen), eta kamioiek aireportu militarrean eraman ondoren, Euskal Herrira ekarriko zituzten hegazkinaz ez zieten ezer zehatzik esan, eta azkenean hurrengo eguneko laurak arte ez ziren Bilborako bidean jarri. Azken batean, Saharako familiari egoniko sei eguneko bisitaldi atsegina bat bezala gogoratu ordez, izan dituzten traba desatsegina hauek jarri dira horren gainetik. Aste Santuan errefuxiatuen kanpamentuetan izan direnak, abenduko bidaiarako zer egin erabakitzeke, bilera bat egitekotan geratu dira.

Proiektuak aurrera

Tolosaldea Sahararekin elkarrekin burutzen dituen ekimenen bidez lortutako diruarekin igerilekua, jolas-tokia, liburutegia eta Internet gela dituen gunea erakitzen laguntzen ari da, eta elkarteko kideek azken egonaldian ikusi ahal izan dutenez, «bide honetik doa proiektua». Hau amaitzen dutenean Fronte Polisarioak ikusiko du non dagoen behar handiena, eta orduan hurrengo proiektu horretarako bideratuko du elkarrekin Tolosaldean bildutako dirua.



Futbol zelaia, jolas-tokia, igerilekua eta liburutegia ditu, Tolosako elkarrekin lagundutako proiektuak. E.E.

ELI ETA AMAIUR EIZAGIRRE ▶ TOLOSALDEA SAHARAREKIN ELKARTEKO KIDEAK

«Une oso politak igaro arren, sentsazio txarrarekin bueltatu gara»

Eli eta Amaiur Eizagirre leaburuarrak Aste Santuko jai egunetan saharar errefuxiatuen kanpamentuetan izan dira, Aljeriako basamortuan. Bidaian izandako oztopoen eta elkarteko dituen proiektuen inguruan hitz egin digute. Baita, laster hasiko den udan 2 hilabetez haur saharar bat etxean hartzeko kanpainaz ere. **Kanpamentuetarako bidaietan ustekabeak izan dira, baina horrelakorik ez.** **Eli Eizagirre.** Hau gertatu eta gero okerrena da sentsazio txarrarekin geratzen zarela, hori gogoratzen duzula bidaia-tik, eta une oso politak igaro ditugu gure familiekin. Hurrengo bidaian ez bueltatzeko gogoia ematen dizu, baina hori sahararren kalterako izango litzateke.

Zer izan zen gogorrena? Amaiur Eizagirre. Joaterakoan ordu ugari egin genituen Tindufeko aireportuan zain, eta eman ziguten arrazoia zera izan zen, Nafarroatik zetozenak itxaron behar genituela. Etxerako buelta izan zen gogorrena; ezin zigutela esan noiz izango genuen hegazkina adierazi ziguten, eta zain egon beharko genituela. Gau osoa aireportuan igaro beharra izan genuen, lurrean etzanda, eta aireportutik atera arazi ere egin gintuen hurrengo egunean Aljeriako polizia; laurak arte ez genuen hegazkinik izan Bilbora bueltatzeko. **Erantzunen bat emateko, zer-bait egitea pentsatu duzue? E. E.** Han ginen artean bilera bat egingo dugu laster, zer egin erabakitzeke.

Bidaiari dagokionez, zuen familia ikusteaz gain elkarrekin laguntzen ari den proiektua ikusi ahal izan duzue. **A. E.** Bai. Une honetan igerileku txiki bat, liburutegia, jolas-tokia... izango dituen gunearekin ari gara, batik bat udan desertuan geratzen diren gazteei zuzendua. Aurrera begira, futbol zelaia edo eskola bat egiteko izan liteke dirua, baina aztertu beharra dago. **Laster udako kanpainarekin hasiko zarete.** **E. E.** Uda oso gertu dago, eta laster hasiko gara Tolosaldean udako bi hilabetez haur saharar bat hartuko duten familiak topatzen. Esperientzia oso polita eta aberasgarria izaten da, eta animatzen direnek errepikatu egin nahi dute normalean. ◀

GUTUN@K ▶

Casa Ayestaran langileen salaketa

Casa Ayestaran SL enpresako langileek, batzarrean bilduta, zuzendaritzarekin negoziatzen jarraitzea erabaki zuten, gure ordezkari sindikalaren bidez eta sekzio bakoitzeko langile batek lagunduta.

Atal sindikala osatzen duten zazpi langilek ez dute batzarrean hartutako erabakia onartu, eta greba muga gabea egiteko deialdian aurrera egin dute. Gainerako langileek (20) lanean jarraitzea erabaki dute.

Langile horiek lanean ari ziren bitartean, mehatxuak jaso dituzte eta beraien lana burutzea eragozti die. Gauzak horrela, langileen batzarrek honakoa salatu nahi du:

Langile horiek ez dute ez batzarrean erabakia onartu ez besteok lanean jarri dezagun utzi, gure eskubidea den arren.

Greba hau jendaurrean salatu nahi dugu, langileen beraien kontra doalako.

Pablo Garmendia Romero ELAko sindikalista liberatuaren jarrera salatzen dugu, langileen arteko harremana apurtzea bultzatzen ari baita.

Jasaten ari garen eraso larri eta presio handiaren aurrean, une honetan eskura ditugun neurriak hartzea erabaki dugu.

JUAN CARLOS SANTOS
(CASA AYESTARAN ENPRESAKO
LANGILEEN ORDEZKARIA) ▶ ADUNA

iragarki laburrak ▶

LANA
Tabernaria. Tabernaria behar da. Interesatuak 615 789 006 telefono zenbakira dei dezakete. **Zerbitzaria.** Zerbitzaria behar dugu Amasako tabernan. Interesatuak 943 69 12 10 telefono zenbakira deitu. **Sukaldaria.** Villabonan sukaldaria behar da. Interesatuak deitu 943 69 19 33 telefono zenbakira. **Garbiketa, sukaldia.** Jangeletarako, eskolak. 943 44 48 66. **Gidaria.** Erakunde publikoetarako. Deitu 943 44 48 66ra.

SALGAI
Trikitixa. Trikitixa berria saltzen dut. Interesatuak deitu 669 67 36 49 telefono zenbakira.

LARRAUL ▶ GIZARTEA

«Orain, probetxua atera behar»

Kultur gune berria «esfortzu handiz» eraiki dela dio Jon Urkaregi alkateak

IMANOL GARCIA

Antton Amonarriz kultur gune herriari erabilpena ematen ari zaie herritarrek, urtarrilean inauguratu ostean. «Esfortzu handia suposatu dio herriari», dio Jon Urkaregi alkateak. Herri txiki batean horrelako eraikin bat egin eta gero, «orain probetxua atera behar zaio», gaineratu du Urkaregi. Kultur guneak 600.000 euro inguruko kostua izan du eta Europako Erein programaren bitartez %65eko diru laguntza lortu du Udalak.

Hiru solairu ditu kultur guneak eta bakoitzean hainbat espazio ditu. Azpiko solairuko gela nagusia haurreskolarako zegoen aurreikusita eta horrela prestatu dute. «Eusko Jaurlaritzak esan zuen herri guztiek izango zutelako 0 eta 3 urte bitarteko haurrentzako haurreskola», dio Urkaregi.

Hori buruan, haurreskola batek behartzen dituen arau guztiak kontuan hartuz prestatu zuten. Baina, azkenean, ez da gauzatu. «Prestaketak egiten ari ginela, Eusko Jaurlaritzak bere irizpidea aldatu zuen eta Asteasun haurreskola bat dagoenez, han plazak dauden bitartean bertara joateko esan ziguten». Horrela, haurreskola izan behar zuenak ludoteka da egun. «Guraso talde batek kudeatzen du. Giltzak dituzte eta beraiek antolatzen dira. Eguerdialdi txarra egiten duenerako espazio egoki bat dute hemen», zehazten du alkateak.

Ludotekaz gain, azpiko solairuan biltegi bat dago eta beste gela txiki bat, egun eskulanean ikastaroa egiteko erabiltzen dena.

Erabilpen anitzak

Behe solairuan bi gela daude. Horietako batean liburutegia eta KZgunea jarri nahi dute.



Balioanitzeko gela goiko solairuan dago. I. GARCIA



Ludotekarako atonduta duten espazioa eta eskulana egiteko gela. I. GARCIA

Orain bi zerbitzu horiek udal-tertxean eskaintzen dituzte eta Kutxari eskaturiko diru laguntza batean zain daude materialen lekualdaketa egiteko. Beste gela egun meditazio ikastarorako erabiltzen dute. «Hasiara batean medikuaren kontsulta jartzea nahi genuen, baina Osakidetza ezekoa eman zuen», dio Urkaregi. Behe solairuan, komun publikoak daude ere. Kanpotik sartu ahal da eta beti dago irekita.

Goiko solairuan biltegi bat, bulegoa eta balioanitzeko gela daude. Bulegoan hartzen du jendea gizarte laguntzaileak. «Lehen udal-tertxean egiten zuen, baina orain intimitate gehiagorako aukera du bulegoan».

Balioanitzeko gela laukizuzena da. Bertan hainbat ekitaldi egin dituzte dagoeneko: herri-tarrek antolatutako film emanaldiak, Mendikoiren ekitaldia, hitzaldiak, antzerki ikastaroa...

Kultur guneak «aukera ugari» ematen ditu, Urkaregi azaltzen duenez. «Orain herri-tarrek animatu egin behar dira eta ahal den erabilpen gehiena eman». Herrian ia etxebizitza berri guztiak eraiki dituzte, guztira 37, eta batzuetan jendea hasi da bizitzen. «Batez ere jende gaztea etorri da eta espero dugu herriko bizitzan sartzea eta, esaterako, kultur gunea erabiltzea», azaltzen du Larraulgo alkateak.

ADUNA ▶

Beldur gaua 22:30etik aurrera Asvinenean

Adunan dagoen Asvinenea arte eszenikoen laborategian Beldur gaua antolatu dute gaurkorako. 22:30etik aurrera, laburmetraiak, ipuinak eta «ezustekoak» izango dira, antolatuzaileen esanetan.

ANOETA ▶

No Relax musika taldea Gaztetxean

No Relax taldeak kontzertua eskainiko du bihar Anoetako Gaztetxean. 23:00etan hasiko da emanaldia. No Relax orain urte batzuk utzitako Ska-P taldeko hainbat musikariek eginiko proiektu berria da eta mundu osoan barrena bira bat egiten ari dira.

ANOETA ▶

Hauteskondeei begira herri batzarra, etzi

Udal hauteskundeak maiztzean izango direla eta, Larraulen herri batzarra egingo dute hautagaien zerrenda aukeratzeko. Batzarra etzi egingo dute, igandea, 12:00etan udaletxean.

VILLABONA ▶

EHNA egiteko aukera bihar Kultur Etxean

EHNA egiteko aukera izango dute bihar billabonatarrek Kultur Etxean. 11:00etatik 13:00etara izango da ordutegia. Ohi bezala, EHNA egin nahi dutenek hiru argazki, errolda agiria eta 15 euro eman behar dituzte.

DENOK apirilaren 4tik 22ra
SINATZERA!

PROZESUAREN ETA HAUTESKUNDE DEMOKRATIKOEN ALDE

**HERRIETAKO NOTARITZETAN
UDALETXETAKO IDAZKARITZETAN**

badator
euskal herri berria



www.euskalherriberria.info

ALBIZTUR ▶

Hauteskundeetan herritarren bilera egingo dute etzi

Albizturren Udal hauteskundetako herritarrez osatutako zerrenda prestatzeko hirugarren eta azken bilera deialdia egin du Udalak etzira. Beraz, hilaren 14an, 21:00etan izango da, udaletxean bertan. «Herritar guztiak etortzea eskatzen dizuegu, etorkizunera begira gaiak daukan garrantziaz jabeturik», gogoratu dute udaletzeko langile ordezkariak.

ALEGIA ▶

7e pasa Pilota Txapelketako partida onak, etzi

7e pasa Pilota Txapelketako lehen fasea bukatuta 8 bikote pasa dira final-laurdenetara. Etzi jokatuko dute Alegiko pilotalekuan, 15:30etik aurrera eta neurketak hauek izango dira: Alain-Iñaki eta Iriarte-Zubeldia; Ion-Igor eta Murua anaiak; Gari-Beniat eta Rautxi-Rubio; Artola-Gallarreta eta Donpi anaiak (Xabier eta Jokin). Ikusteko dibertigarriak izango dira.

ALEGIA ▶

Intxurreko neskek Laskorainen aurkakoa dute

Gaur 21:00etan, Alegiko futbol zelaian Intxurre areto futbol taldeko neskek Tolosako Laskorainen aurka jokatuko dute. Derbi gogorra beraz, ikusteko aukera izango da. Alegiko taldea aurrealdean dabil goiko mailan, baina oraindik arerio gogorak izango ditu. Lurraldekoak, kadeteek eta jubenilek berri, atsedena izango dute asteburu honetan.

ALEGIA ▶ GIZARTEA



Mahai jokoen Txapelketa

Erredakzioa ▶ Mahai jokoen Txapelketako irabazleak hauek izan dira: musean Juan Antonio Aizpilagain eta Juan Jose Ayestaran. Bigarren, Santos Irazustabarrena eta Luis Otaño izan ziren. Tutean azken bikote hau irabazlea izan zen, eta bigarren berriz, Baltasar Martin eta Miguel Calvo. Eskoban, Pepita Zumeta eta M^a Kruz Urrestarazu irabazle, eta bigarren, Josefa Elola eta Margari Arsuaga. Bukatzeko, txintxonean Margari Arsuagak irabazi zuen. Denek ere, merezitako saria jaso zuten. X. RENOBALDES

ALEGIA ▶ KULTURA

Hasi da II. Bertso Paper Lehiaketa

Zazpi Astoren Gainean bertso eskolak antolaturiko txapelketako helduen maila martxan jarri dute

ERREDAKZIOA

Zazpi Astoren Gainean bertso taldeak aurtun II. Bertso-Paper Lehiaketa antolatu du. Iaz bezala, 15 urtetik beherako eta 16 urtetik gorako taldetan banatu dute txapelketa hau.

Helduen lehiaketako baldintzak, berriz, jada jarri dituzte: maiatzaren 18a izango da bertsoak aurkezteko azken eguna.

Amaiaren bertso afari bat egiteko asmoa dute sariak emateko: «Iaz oso ondo atera zen afaria eta errepikatzea erabaki dugun», diote antolatzaileek. Antolakuntza lanetan Zazpi Astoren Gainean bertsozaleen taldea izan da. Laguntzaileak, berriz, Alegiko Udala, San Juan eskola eta Aralar institutua izan dira.

Lehiaketaren oinarriak iazkoak dira, hau da, parte-hartzaileak adinaren arabera, bi taldetan banatuko dira. A taldean 15 urte baino gutxiago dutenak, eta B taldean 16 urte



lazio parte-hartzaileak, 16 urtetik beherako mailan. N. URBIZU

edo gehiago dituztenak. A taldean, gazteetan beraz, bi azpitale egingo dira saridunak aukeratzeko. Halere, gaztetxoan lehiaketa egiteko eskolakoen harremanetan jarri dira, eta aurrerago ezarriko dituzte baldintzak.

Beraz, parte hartu nahi duen guztiak hasi beharko du bertsoak prestatzen, ondorengo egunetan, besteak beste, epaimahaiak erabaki dezan zein diren aurtengo onenak. «Bertso afarian izaten den giroarengatik bakarrik merezi du».

BALDINTZAK ▶

Mailak. 15 urtetik beherakoak A taldea, eta 16 urtekoak eta 16 urtetik gorakoak B taldea.
Aurkeztekoa. Gutxienez 5 eta gehienez 10 bertso idatzi.
Gaia eta doinua. Librea, baina argi eta garbi doinuaren izenburua jarri behar da.
Nola aurkeztu. Gutunazal ibi batean bertso lanarekin, eta

beste gutun-azal batean egilearen datuak: izen-abizenak, helbidea, telefono zenbakia...
▶ Oharra: bi gutun-azalaren egilearen izenordea edo goitizena jarri beharko da.
Non aurkeztu. Inaxio Begiristain kultur etxean, edo bestela helbide elektronikoz. Helbidea: zazpiastorengainean@euskalerrria.org.
Epea. Entregatzeko azken

eguna maiatzaren 18a izango da; epea zabalik dago.
Sariak. Maila bakoitzean lehen biak izango dira sarituak, epaimahaiak beste sari bereziren bat erabaki ezean.
▶ B taldekoek bertso afaria izango dute eta bertan sariak banatuko dituzte. Maiatza bukaera alderantzizko asmoa dute. A taldekoen sariak zehaztu gabe daude.

IKAZTEGIETA ▶ PILOTA



Udaberri Txapelketan garaile

N. Urbizu ▶ Herrigintza-Elordi pilota elkarteak Axier Alonsok eta Iñaki Olanok 22 urte azpiko Gipuzkoako Udaberri Txapelketako 3. maila irabazi dute. Partida gogorra egin omen zuten, 22-13 irabazita. Joxan Urretabizkaia delegatua ere «pozik» agertu da. HITZA

ALEGIA ▶ FUTBOLA



Infantilak, handien moduan

N. Urbizu ▶ Intxurreko infantilek beste garaipen bat lortu dute: Idiazabalgo 8. futbol 8 torneo, hain zuzen. Idiazabalen aurka irabazi zuten 2-1. Dagoeneko 4 txapelketa irabazi dituzte. P. R.

LEABURUKO OSTATUA

- Eguneko Menua (aste guztian, larunbat eta igandea izan ezik)
- Karta aste guztian zehar

Urrope plaza • Leaburu
Tel.: 943 67 15 48

MOBILIZAZIOA ▶


Askatasunak
larunbatean
elkartzeko
deia luzatu du

A. IMAZ

Tolosaldeko Askatasunak, larunbat honetan Donostian egingo den manifestazioan «parte hartu beharra» dagoela adierazi du. Bulebarren izango du hasiera 19:00etan, bertan Espainiako Guardia Zibilak eginiko 11 atxiloketa eta «inkomunikaturik egon diren denboran hauek jasandako torturak» salatuko dituzte.

Askatasunak jakinarazi duenez, «atxilotu guztiek salatu dituzte tratu txarrak eta torturak. Sergio Lezkanoren kasua ordea bereziki larria da. Espetxean ikusi du abokatuak eta bizkarrean meloi baten tamainako ubeldura zuten. Honetaz gain, bi alditan bortxatu dute bi makil ezberdin uzkitik sartuta. Hau nahikoa ez eta oso estu lotu zizkioten eskuburdinakin ezin kendu zebiltzala, zerrarekin hasi zitzaizkion burdinakin moztzen, horretan ari zirela, eskumuturretan ebakiak egin zizkioten. Antitentanikoaren txertoa jartzera ospitale-raman behar izan zuten. Beste atxilotu batzuei ere bortxatuko zituzten imintziok» egin zizkiela esan dute.

Tortura «gerra tresna» dela salatu dute Askatasunatik. «Herri honetan demokraziarik ez dagoenaren adibide argia da, politikari batzuen ixiltasunak bideratzen dituenak». Gertakari hauek «salatzeko, larunbatean Bulebarren elkartu beharra» azpimarratzu amaitu dute.



Salgai (Tolosa) lurraramendi auzoan etxe zoragarria. 2 solairu. 5 logela, 3 bainugela. Garaie bikoitza.

Salgai (Tolosa) Izaskun auzoan hainbat pisu. Eraberritua. Bizitzera sartzeko prest.

Salgai (Anoeta) Pisua. 75m2. 3 logela, sukalde galanta. Terraza eguzkitsua eta galanta.

Salgai (Alegia) San Juan kalean pisua. 2 logela, berogailua. Sartzeko prest.

Salgai (Ibarra) Pisua. 2 logela. Eraberritua. Sartzeko prest.

Salgai (Ezkarai) Apartamentu ederra. 2 logela, sukalde osatua. Herriaren erdian. 150.253 euro.

943 69 71 96 • 675 705 268
Korreo Kalea 50

TXIRRINDULARITZA ▶

Euskal Herriko Itzuliaren
4. etapa gure eskualdeetan

Atzokoan, ibilbide gogorak jende ugari bildu zuen errepide ertzera

ASIER IMAZ

Euskal Herriko Itzuliaren laugarren etapa gure eskualdeetan barrera igaro zen atzokoan. Gasteiztik (Araba) irten ziren eguerdian eta Huitzi igoaz gerturatu ziren Leitzara. Hemendik Berastegira heldu ziren. Aldapa behera jeitsi ondoren, Leaburuko gaina izan zuten Lekunberrin kokaturiko helmugara heldu aurreko oztopo. Belauntza eta Leaburu igaro ondoren, Tolosako Amarotz auzotik, Txaramatik eta Lizartzatik ere pasa ziren.

Eguraldiak laguntzeaz gain, jende asko jai eguna zuenez, haur, gazte eta heldu ugari bildu ziren errepide ertzean. Zaleek gustura hartu zituzten txalo eta oihu artean txirrindulariak. Bitxikeriak ere ikusi ziren atzokoan; Belauntzatik pasatzen zela aprobetxatuz, Ludotekako haurrek mural batzuk ere egin baitzituzten txirrindulari guztiak animatuz.

Etapa gogorra eta bizia

Itxaropenik bazen sailkapen nagusiari begira gure eskualdeetatik pasatzen zen etaparekin. Huitziko eta Leaburuko gaina izateaz gain, helmugatik gertu Azpirozko mendatea gainditu behar zuten txirrindulariek. Amaieran ez zen ordea lehen postuetakoen artean tar-te handiegirik egon.

Ikusgarritasuna lehenek jarri ezinean, 25 urteko alemaniar gazte batek jarri zuen, izan ere, Jens Voigtek erakustaldi aparta eskaini zuen atzokoan. Ibilbide gogorari bizi-bizi aurre egin zion, nahiz eta Huitzi



Huitzi igo ondoren, Leitzara jaitsi eta herri erditik igaro ziren herritarren gozamenarako. NAIARA GARZIA

igotzen hasi aurretik arazoak izan gurpilearekin.

Pelotoi multzotik ihes egitea lortu zuten sei txirrindularik, Mikel Artetxe euskalduna bertan zelarik 6 minutuko abantaila lortuaz. Leitzara gerturatzen ari zirela, Huitziko gaina zuten aurretik. Igoera erabakiorra izan zen, nahiz eta hasieran gauzak indartsuenari okertu egin zitzaizkion. Gurpileko radioa hautsi zitzaion Jens Voigti eta ia bere eskuekin ipini behar izan zuten. Ondoren, iheski-deak harrapatzeaz gain eraso jo eta atzean utzi zituen. Leaburuko maldan ere ez zuten arrapatzerik izan, helmugaraino oso indartsu joan baitzen.



Belauntzako ludotekakoak txirrindulariak animatzen atzokoan. HITZA



Leaburu gainean pelotoia jendez inguratutik. ASIER IMAZ

LEITZA ▶ FUTBOLA

NAIARA GARZIA

Igoera faserako azkeneko txanpan sartu dira leitzarrik eta bihar Zizurko Ardoi taldearen aurka ariko dira. Fase hau amaitzeko bost norgehiagoka besterik falta ez direnean, Aurrera taldearen postuak hobera egin du, hirugarren postutik bigarrenera igo baita.

Bigarren fase honetan orokorrean lehenengo eta bigarren postuetan ibili dira leitzarrik, nahiz eta duela aste pare bat, bi partida jarraian galdu eta gero, hirugarren postura jaitzi ziren. Hirugarren postuaz egoteaz gain, atzetik heldu zirenekiko puntu ezberdintasuna oso murrizta zenez, une horretan leitzarren arerioak atzetik heldu ziren hauek zirela argi utzi zuten arduradunek: Bidezarra, Infanzones eta Beriain. Orain berriz, joan den ostegunean Beriainen aurka urtarrean bertan behera utzitako norgehiagoka hori jokatu eta irabazi ondoren (2-1) bigarren doaz, 22 punturekin. Ilumbarri taldea atzetik dutela, 20 punturekin. Infanzones, Bidezarra, Universidad de Navarra eta Beriain atzetik doaz, 18, 15 edo 14 punturekin.

Igoera fasearen amaieran

Igoera fasea amaitzeko 5 jardunaldi besterik ez dira gelditzen (batean atsedean hartuko dute), baina bi arerio nagusien aurkako partidak jokatzeko dituzte oraindik: San Cristobal, lehenengo doana (30 punturekin) eta Ilumbarri, hirugarrena (20rekin). Norgehiagoka hauek gaur, asteburu honetan azkenaurko doan Ardoien aurka ariko dira, eta azkeneko norgehiagokan Ondalan taldea izango dute arerio. Partida ho-

Aurrera futbol taldea Zizurko Ardoien aurka ariko da bihar

Arerioa azkenaurko doan arren, amaitzeko 5 jardunaldi falta dira, eta Aurrerak bi partida gogor ditu jolasteko



Aurrera Taldeko futbolariak, joan den urteko norgehiagoka batean. JAOINE ASTIBIA

nek ere ez du printzipioz leitzarrentzat arriskurik suposatzen, talde hau azkeneko postuan baitoa.

Igoera fase honetan lehenengo hiru gelditzen direnak igoko dira mailaz, beraz ez da beharrezkoa lehenengo gelditzea, izan ere, San Cristobal taldeak Aurrerarekiko aban-

taila bezala dituen 8 puntuak gaintzea ez da gauza erraza izan leitzarrentzat.

Talde honi gelditzen zaizkion jardunaldi hauetan atsedean hartuko duen hori kenduta, Aurrerak bezalaxe bi norgehiagoka erraz eta beste bi gogorrragoak geldituko zaizkio. Lehenengoen kasuan, Bidezarra

eta Ondalan ez dira talde honentzako arerio gogorregiak, Bidezarra bosgarren doala kontutan hartuta badugu, eta Ondalan, azkeneko (bederatzigarren). Beste bi partidak, aldiz, Aurrera eta Ilumbarriren aurka jokatuko ditu, eta azken finean, hiru talde hauen artean egongo da borroka nagusia.

GIZARTEA ▶

Diru laguntza interesgarriak, Cedernaren eskutik

ERREDAKZIOA

Cederna-Garalur elkartearen barruan, Europe Direct izeneko zerbitzuak Europari buruzko informazioa biltzen du, hainbat alorretan.

Diru laguntzei dagokienez (www.CEDERNA.ES/EUROPA webgunean kontsultatu daitezke), Europe Direct-ek esparru askotara bideratutako deialdiak biltzen ditu: merkataritza, hezkuntza, ekonomia... Merkataritza arloan, merkataritza elkarreak eta enpresen arteko lankidetzak sustatzeko diru laguntzen deialdi bat bildu dute, eta hezkuntzaren arloan, besteak beste, Nafarroako ikastetxeetako ikasleek Gurasoen Elkartearen aldeko laguntzei buruzkoa, eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetako ikasleek Elkartearen aldekoa.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

- ▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
- ▶ **Anoeta-Alkiza-Hernalde.** Medikua: 65 23 39
- ▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
- ▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003
- ▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361
- ▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
- ▶ **Ibarraldea.** Osasun etxea: 672411
- ▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
- ▶ **Irua.** Osasun zentroa: 690720
- ▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800
- ▶ **Orendain.** Medikua: 655595
- ▶ **Orexa.** Medikua: 682228
- ▶ **Tolosa.**

- ▶ Anbulatorioa, larriald: 461111
 - ▶ San Esteban: 006800
 - ▶ Gernikako arbola: 006900
 - ▶ Amarozen dispen.: 672637
 - ▶ Asunzio Klinikak 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
 - ▶ DYA: 672536
 - ▶ Gurutze Gorria: 674888
 - ▶ Villabona. Anbulat.: 006970
 - ▶ Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930
- ### Garraioak.
- ▶ Renfe: 902 24 02 02
 - ▶ Donostiako autobusa: 361740
 - ▶ Tolosaldea bus: 650621
 - ▶ Leitzarar autob.: 948 221015
 - ▶ Taxia: 670420
 - ▶ Taxia (Leitza): 608 873016
- ### Besterik.
- ▶ Ertzaintza: 538820
 - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
 - ▶ Tolargi: 650016
 - ▶ Iurrumendi egoitza: 670325
 - ▶ Tolosa gasa: 675320

LEITZA ▶ PILOTA

GRAVN Txapelketan, Irurtzungoan, Antiguokoan eta Elgetakoan lehiatuko dira Aurrerako neska-mutilak

Saioa Iraolak eta Iera Agirrek Amazabal pilotalekuan jokatu dute, GRAVN Txapelketan

N. GARZIA

Asteburu honetan Aurrera Pilota Eskolako pilotariak, asteburu bezala, hainbat txapelketatan parte hartuko dute. Zehazki, ondorengoetan jokatu dute: Irurtzungo Txapelketan, Antiguoko Txapelketan, Elgetakoan eta GRAVN lehiaketan.

Asteburu honetan, ordea,

ohikoa ez den bezala, Aurrerako pilotariak gaur bertan jokatu dituzte norgehiagoka gehienak, Irurtzungo Txapelketan izango baita larunbatean jokatu den bakarra.

Jon Jaunarena Antiguoko Txapelketan buru belarri dabil eta gaur ere beste norgehiagoka bat jokatu du, Donostian, kadeteen mailan. Aimar Lansalot, berriz, Aramaiona izeneko

herrian ariko da, Elgetako Txapelketa delakoaren barruan. Lansalot gazte Lau t'erdian lehiatuko da.

Gaur Leitzako Amazabal pilotalekuan ere jokatu du norgehiagokarik, izan ere, Saioa Iraola eta Iera Agirre Araba taldearen aurka ariko baitira, 20:30ean, emakumezkoen gomazko paletan, GRAVN Lehiaketaren barruan. Partida

hau irabazten badute, finalera pasako lirateke, eta Gipuzkoako taldearen aurka ariko lirateke.

Bihar jokatu duen Irurtzungo Txapelketari dagokionez, Aurrera Pilota Eskolako lau pilotari lehiatuko dira bertan, 16:30ean: Anartz Olano eta Mikel Sagastibeltza Egues, alde batetik, eta Mikel Sagastibeltza Lasarte eta Ibai Gil, bestetik.

AGENDA ▶
DEIALDIAK

Ibarra. *Liburuzainaren bahiketa* antzerki emanaldia, Xoxipe antzerki taldearen eskutik Kultur Etxean 11:30ean. Sarrera doan.
Tolosa. Gipuzkoa Encounter informatikazaleen topagunea izango da asteburuan zehar Usabal kiroledegian.
Tolosa. Aurtren Kazkabarra Taldearen 25. urteurrena da, hori dela eta, urte haueetan taldearekin harremana izan dutenentzat afaria antolatuta dute apirilaren 21erako. Hala, txartelak eskuragai dira Ikatza, Raku eta Mescalen.
Tolosa. La Jara Extremadurako Zentroak irteera antolatuta du Extremadurara maiatzeko zubitako Trujillo (Cáceres), Don Benito (Badajoz), Zafra (Badajoz), Jerez de Los Caballeros (Badajoz) eta La Serena (Badajoz) bisitatuz. Prezioa: 230 euro. Izen-ematea, 675 707619.

ZINEMA

Tolosa. *El velo pintado* filma (drama) emango dute asteburuan Leidor aretoan: gaur 22:30ean, bihar 19:30ean eta 22:30ean, etzi 19:30ean.

ERAKUSKETAK

Tolosa. Juan Ramon Llavori argazkilariak Nepalen egindako argazkiekin osatutako *Las miradas de la tierra* erakusketa Aranburun. Ikusgai bihar arte.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Lekunberri. Azpiroz, M.A. Aralar kalea, 43. 112.
Tolosa. Santamaria, I. Nafarroa etorbidea, 2. 943 654610.

IRRATIA

Txolarre irrateria (107.5, 101.2 FM)
11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotsa* magazina: eguraldia Joxe Landarekin, Hitzaeren errepasoa, elkarrizketak, agenda, lehiaketa...
18:00-20:00. *Tolosaldeko ahotsa* (errepikapena).
20:00-21:00. *Asteko onena*.
21:00-22:00. *Igo bolumena*.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzukizunik.

Tunezetik bitxikeriak

HITZA ARGAZKI LEHIAKETA ▶ Gaurko bi irakurleek Tunezeko kultura eta ohiturak harrapatu dituzte euren argazki kameren objektiboarekin

EMAZTEGAIAREN GARRAIO ▶

Maialen Jauregi Romeo (Ibarra).

Maialen Jauregi Romeo ibartarrak Tunez aldera egin du bidaia azken Aste Santuko oporraldian. Ziur argazki mordo atera dituela bere kamerarekin baina zahazki honako argazki ederra aukeratu du HITZAREN lehiaketaren bosgarren ediziora bidaltzeko: «Aste Santuetan Kairouan (Tunezen) ateratako argazkia bidaltzen dizuet. Dromedario honen gainean emakume bat bere ezkontz eguneko erritoan joaten da ezkotuta», azaldu digu Maialene.



TUNEZ ▶

Karlos Jauregi (Ibarra).

Oporraldian leku berdinean izan da Karlos Jauregi ibartarra, Maialenekin batera. Hango ohitura eta bestelako bitxikeriak harrapatu ditu bere argazki kamerarekin. «Argazki hau bidaltzen dizuet, aurtengo Aste Santuan Tunez-en ateratakoa, Sousse herriko merkatuan. Badirudi Aste Santuan barraskiloak jatea ez da Euskal Herriko ohitura bakarrik», dio Karlos Jauregik.

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
Iñigo Landa Aldalur (Ibarra). Zorionak familiaren eta batez ere iloba Garaziren partetik.



URTE ASKOAN
Uxue Nazabal Eola (Irura). Gaur 2 urte. Zorionak etxekoien partetik.



URTE ASKOAN
Garazi eta Olatz. A ze pare! Lehen bai gazte eta orain... Ezetz asmatu zein izan den?



URTE ASKOAN
Iraia Gonzalez Azkolain (Tolosa). Gaur urtebete. Muxuak familiaren partetik.

Urtebetetzak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...